

HIREKIN ZENTROAREN LEHEN HARRIA JARRI DUTE

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoa buru duen HIREKIN industria-berrikuntza eta -ekintzaitzako zentroak industria jasangarriaren eta balio erantsi handiko industriaren erreferentziatzko zentro bihurtu nahi du.

Arrasateko Uribarri auzoan kokatuta, Goi Eskola Politeknikoko, beste fakultate batzuetako edo hirugarren fakultateetako enpresa, ekintzaile, ikertzaile eta ikasleentzako lankidetzako gune bat sortuko da.

Gaur egun, hauek dira proiektua aurrera eramateko Mondragon Unibertsitatearekin elkarlanean ari diren erakundeak: MONDRAGON, Saiolan, Ikerlan, Fagor taldea eta Gizabidea fundazioa, Debagoieneko Mankomunitatea, Isea, Galbain eta Garaia Parke Teknologikoa.

Lehenengo harria jartzeko ekitaldia 2023ko urtarrilaren 16an egin zen, eta egunkariak, txanponak eta proiektuari buruzko dokumentazioa zituen kutxa bat sartu zen; horiez gain, kutxan zeuden baita ere MONDRAGONek sustatutako Humanity & Music ikuskizunaren oroimen libretoa eta gure Elkarteak Arizmendiarrietaren bizitza eta obrari buruz sustatutako HAZIA musikalak 2022ko irailaren 17an eta 18an Arrasaten egindako estreinaldiko kartel iragarlea eta eskuzko egitaraua.

Eta bertan parte hartu zuten Markel Olano, Gipuzkoako Ahaldu Nagusia; Vicente Atxa, Mondragon Unibertsitateko errektorea; María Ubarretxena, Arrasateko alkatea; Jokin Bildarratz, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua; Teresa Riesgo, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioko idazkari nagusia; Aitor Esteban eta Andoni Ortuzar euskal diputatuak; Josean Alustiza, Gizabidea Fundazioko lehendakaria; Iñigo Ucín, MONDRAGON korporazioko lehendakaria; Joxe Oleaga, Krea arkitektura estudiokoa, eraikina diseinatu duena, eta Carlos García, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko koordinatzaile nagusia.

Era berean, ekitaldian egon ziren Arantxa Tapia, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen sailburua; Juan Mari Palencia, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko lehendakaria; Javier Larrañaga, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomiaren Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo diputatua; Aitor Esteban, Euskal Taldearen bozeramailea Diputatuen Kongresuan; Andoni Ortuzar, EAJ-PNVko presidentea eta Ignacio García Fenoll, Berrikuntza Ministerioko Berrikuntza Koordinazioko zuzendariordea, beste agintari eta enpresa zein erakunde-ordezkarri batzuen artean.

[\(Argazki galeria\)](#)

[\(Bideoa\)](#)